# MUSIKENEKO AUDITORIUMA, GELAK ETA ESPAZIOEN KANPO ERABILERA PUNTUALETARAKO ARAUDIA

# REGLAMENTO DE USO EXTERNO PUNTUAL DEL AUDITORIO, AULAS Y ESPACIOS DE MUSIKENE

## LEHENENGO TITULUA

## HELBURU ETA IRISPIDE OROKORRAK

## TITULO PRIMERO

## OBJETO Y CRITERIOS GENERALES

**1. artikulua.-** Hauek dira araudi honen xedapenen helburuak:

1. Ikastegian ematen den irakaskuntzarekin edo bertako jarduera akademikoarekin zuzenean zerikusia ez duten jardueretan Musikeneko AUDITORIUMAren, gelen eta bestelako espazioen kanpo erabilera puntuala esleitzeko irizpideak arautzea.

2. Erabilera eta aprobetxamendu horiek esleitzeko oinarriak eta prozedura zehaztea, irudiak hartzea edo grabatzea helburu dutenak barne.

**Artículo 1.-** Las disposiciones de este reglamento tienen como objeto:

1º. Determinar los criterios de asignación de uso externo puntual del AUDITORIO, aulas y otros espacios de Musikene, que son susceptibles de ser utilizados para actividades que no están directamente relacionadas con la actividad docente y académica del Centro.

2º. Definir las bases y el procedimiento para asignar estos usos y aprovechamientos, incluidos los que tengan por objeto la captación o grabación de imágenes.

**2. artikulua.-** Araudi honen eraginpean dauden guneak eranskineko zerrendan agertzen direnak dira.

**Artículo 2.-** Los espacios susceptibles de ser utilizados en base al presente Reglamento se encuentran recogidos en el anexo.

**3. artikulua.** Musikenen garatuko diren jarduerek ondorengo hauek errespetatu eta horiekiko bateragarriak izan beharko dute:

1. Estatutuetan adierazitako Musikeneren izaera eta helburuak.

2. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean agertzen diren balioak.

3. Ingurumen balioak.

4. Ikastegiak defendatzen dituen aniztasun, elkartasun, berdintasun eta tolerantzia balioak.

5. Burutu nahi den bilkura, ekitaldi, ikuskizun eta ospakizun motari dagokion legedia.

**Artículo 3.-** Las actividades a desarrollar en Musikene deben respetar y ser compatibles con:

1º. La naturaleza y los fines del Centro que se encuentran señalados en sus Estatutos.

2º. Los valores plasmados en la Declaración Universal de Derechos Humanos.

3º. Los valores medioambientales.

4º. Los valores de pluralidad, solidaridad, igualdad y tolerancia que propugna el Centro.

5º. La legislación correspondiente al tipo de reuniones, actos, espectáculos y celebraciones de que se trate.

**4. artikulua.-** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailak lehentasuna izango du Musikeneren eraikineko espazio ezberdinak erabiltzerakoan, aurrez idatziz eskatuta eta Ikastegiko Zuzendaritzak baimenduta beti ere, eta ez du inolako tarifarik ordainduko

Ikastegiko Zuzendaritzak eskumeneko boterea eta estimazio askatasuna dauzka, araudi honetako xedapenen eta ondorengo irizpide orientatzaileen arabera:

a) Edozein motatako jarduerak egin ahal izango dira, Musikenerenak eta kanpokoak.

b) Lehentasuna emango zaie Ikastegiko jarduerei eta kultura eta zientzia unibertsalaren ezagutza hedatzeko jarduerei.

c) Baztertu egingo dira araudi honetako 3. Artikuluan ezarritako printzipioekin bat ez datozen jarduerak edo Ikastegiko irakaskuntza eta akademia jardueren garapena eta funtzionamendua modu esanguratsuan eteten dutenak. Betiere, kontuan hartu beharko da irakaskuntza eta akademia jarduera Ikastegiaren nukleoa eta gune nagusia dela eta, horregatik, ahalik eta zintzotasun handienarekin errespetatu behar dela.

**Artículo 4.-** El Departamento de Educación del Gobierno Vasco tendrá preferencia en el uso de los distintos espacios del edificio de Musikene, en todo caso previa solicitud escrita y autorización de la Dirección del Centro y estará exento en todo caso de abono de tarifa alguna.

La Dirección del Centro dispone de potestad discrecional y libertad de apreciación, conforme a las disposiciones de este Reglamento y a los siguientes criterios orientadores:

a) Podrán realizarse actividades de distinta naturaleza, ya sean propias de Musikene como ajenas a la misma.

b) Se dará prioridad a la actividad propiamente del Centro y a la difusión de conocimientos de la cultura y la ciencia universal.

c) Quedará excluida la actividad que no concuerde con los principios plasmados en el artículo 3 de este reglamento o que perturbe de modo significativo el normal desarrollo y funcionamiento de la actividad docente y académica del Centro; teniendo siempre en cuenta que la actividad docente y académica es el núcleo y fundamento de Musikene y que, como tal, debe ser respetada con la mayor escrupulosidad posible.

**5. artikulua.-** Jarduerak gauzatzeko bete beharreko baldintzak:

1. Eskatutako gunea erabili ahal izateko araudi honek agintzen duen baimen zehatza lortzea.

2. Ekitaldia egin aurretik instalakuntzak erabiltzeko lagapen akordioa sinatzea (1 eranskina).

3. Araudi hau betetzearen eta ekitaldia gauzatzeko baldintzatzen den edozein alderdiren erantzukizuna bere gain hartuko duen pertsona bat edo gehiago, identifikatuak eta egiaztatuak, izendatzea.

4. Jardueraren garapenak ez dezala eraginik izan irakaskuntza jardueran.

**Artículo 5.-** Para la realización de la actividad son requisitos necesarios:

1º. Obtener la autorización expresa preceptuada en este reglamento para disponer del espacio solicitado.

2º. Firmar con anterioridad a la celebración del evento el acuerdo (anexo 1) de cesión de uso de las instalaciones.

3º. Que se determine una persona o personas, identificadas y legitimadas, que se responsabilicen del cumplimiento de este reglamento y de cualquier otro aspecto al que se condicione la realización de la actividad o acto.

4º. Que el desarrollo de la actividad no incida sobre la actividad docente.

Era berean, ezingo die eragozpenik sortu, arrazoizko mugen barnean, eraikinean edo horren inguruan dauden pertsonei.

5. Aurreikusitakoaren arabera bertaratuko den pertsona kopurua Auditoriumaren, gelen edo bestelako espazioen edukierarekin bat etortzea.

Tampoco podrá suponer una molestia, dentro de los límites racionales, para las personas que estén en el edificio o su entorno.

5º. Que el número de personas que se prevé que participan en la actividad se ajuste a la capacidad del Auditorio, aulas y otros espacios.

**6. artikulua.**- Ekitaldia, ikuskizuna edo jarduera ez bada eskaerarekin batera aurkeztutako memoriarekin bat etorriz garatzen, baimena emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo ordena publikoa edonola nahasten bada, Musikenek edozein unetan amaitutzat eman ahal izango du.

**Artículo 6.**- Musikene podrá, en cualquier momento de la celebración del acto, espectáculo o actividad, dar por finalizado el mismo si no se desarrollase conforme a la información facilitada en la solicitud, se detectase el incumplimiento de las condiciones que se establecieron para su autorización o se produjese cualquier alteración del orden público.

**7. artikulua.**- Baimendutako ekitaldia edo jarduera amaitu ondoren, sustatu duen pertsona fisiko edo juridikoak erabilitako gunea lehengo egoera berean utzi beharko du. Horretarako, ahalik eta denbora gutxienean ekitaldian erabilitako azpiegitura erretiratuko du. Gai horiei buruz araudi honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada, Musikenek lan horiek ekitaldia sustatu duen pertsona fisiko edo juridikoaren kontura egingo ditu.

**Artículo 7.**- Una vez finalizado el acto o actividad autorizada, la persona física o jurídica promotora del mismo deberá restablecer el espacio que ha ocupado en las mismas condiciones en que se recibió, procediendo en el menor tiempo posible a la retirada de la infraestructura utilizada en el acto. En caso de que se incumpla alguna de las obligaciones contenidas en el presente reglamento referente a estas cuestiones, Musikene efectuará estas labores a cargo de la persona física o jurídica promotora del acto.

## BIGARREN TITULUA

## ESKAERA PROZEDURA

**8. artikulua.**- Ekitaldia edo jarduera egiteko, beharrezkoa izango da aurrez Ikastegiko Zuzendaritzaren baimena izatea eta jarduerak araudi honetan ezarritakoa bete beharko du. Ikastegiko Zuzendaritzak ez ditu derrigorrez baimen-eskaera helburu duen ekitaldiaren eguna baino bost egun baino gutxiagoko aurrerapenaz jasotzen diren eskaerak aztertuko.

## TÍTULO SEGUNDO

## PROCEDIMIENTO DE SOLICITUD

**Artículo 8.**- La celebración del acto o actividad estará sujeta a la previa autorización de la Dirección del Centro, y deberá observar lo dispuesto en el presente reglamento. La Dirección del Centro no estará obligada a examinar las solicitudes que se reciban con menos de cinco días de antelación al evento para el que se solicita la autorización.

**9. artikulua.-** Musikenek antolatutako jardueren esparruan jarduten ez duten hezkuntza-komunitateko kideek, eta Ikastegiaz kanpoko pertsonek Patronatuak onartutako tarifetan aurre ikusten diren zenbatekoak ordaindu beharko dituzte.

**Artículo 9.-** Las y los miembros de la comunidad educativa que no actúen en el marco de una actividad organizada por Musikene, y las personas ajenas al Centro, tendrán que abonar el importe previsto en las tarifas aprobadas por el Patronato.

**10. artikulua.-** Auditoriuma gordetzeko eskaera idatziz egin beharko da horretarako sortuko den inprimaki edo baliabide telematikoaren bitartez, eta bertan puntu hauek zehaztuko dira:

1. Ekitaldia edo jarduera sustatzen duen pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa.

2. Araudi honetan ezarritakoa hertsiki betetzeaz arduratuko den pertsonaren edo pertsona multzoaren identifikazio zehatza eta, hala badagokio, baimena emateko baldintza moduan jarri zaizkien eskakizunak.

3. Eskatutako ekitaldia edo jarduera garatzeko proposatzen den erabilera data edo aldia, hasiera eta amaiera ordua.

4. Arrazoi edo kausa nagusia eta jardueraren garapen programa.

5. Jarduera garatzeko behar teknikoen zerrenda.

6. Ondorengoak betetzeko konpromiso formala:

a) Jarduera normaltasun osoz gauzatzea.

b) Musikeneren irudi korporatiboa/instituzionala zuzen erabiltzen dela bermatzea.

c) Araudi honetan ezarritakoa beteko dela bermatzea, beste batzuek ez betetzea saihesteko beharrezko diren neurriak hartuz.

d) Indarrean dagoen eta aplikaziozkoa den araudian adierazten diren okupazio dentsitate baloreak uneoro betetzea, pertsona erabiltzaile, okupatzaile eta ikusleen kopurua kontrolatzen dela eta eraikinaren barruan eta kanpoaldean jokabide egokia izatea eta norbanakoen eta ondasunen segurtasuna kaltetu dezaketen arriskuak sortzea saihestuko dutela bermatzen

**Artículo 10.-** La solicitud de reserva del Auditorio deberá hacerse por escrito utilizando el modelo de impreso o medio telemático que se cree al efecto, y en ella se determinará, de manera expresa:

1º. La identificación de las personas físicas o jurídicas promotoras del acto o actividad.

2º. La identificación concreta de la persona o personas que se van a hacer responsables directos del estricto cumplimiento de lo preceptuado en este reglamento y, en su caso, de los requerimientos a los que se les condicione la autorización.

3º. La fecha o período de uso, y el horario de inicio y finalización propuestos para el acto o actividad solicitada.

4º. El motivo o causa principal y el programa de la actividad.

5º. El listado de necesidades técnicas para el desarrollo de la actividad.

6º. El compromiso formal de:

a) Desarrollar la actividad con plena normalidad.

b) Garantizar el uso correcto de la imagen corporativa/institucional de Musikene.

c) Garantizar la observancia de lo dispuesto en el presente reglamento, adoptando las medidas necesarias para evitar su incumplimiento por parte de terceras personas.

d) Cumplir en todo momento los valores de densidad de ocupación señalados en la normativa vigente aplicable, adoptando las medidas necesarias que garanticen el control del número de las personas usuarias, ocupantes o asistentes, el comportamiento adecuado y actuación de las mismas en el interior y exterior del recinto, y eviten la generación de peligros

duten beharrezko neurriak hartuz.

que puedan suponer un menoscabo en la seguridad de personas y bienes.

e) Eraikinaren larrialdi-plana ezagutu eta betetzea, ebakuazio irteerak eta elkarguneak ezagutzea, eta jardueraren pertsona erabiltzaile, okupatzaile edo ikusleen ebakuazioa bermatuko duten pertsona arduradunak izendatzea.

e) Conocer y cumplir el plan de emergencia del edificio, conocer las salidas de evacuación, el punto de encuentro, y nombrar responsables que garanticen la evacuación de las personas usuarias, ocupantes o asistentes a la actividad.

11. artikulua.- Jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, pertsona antolatzaileari hau eskatu ahal izango zaio:

Musikeneren aldeko erantzukizun zibileko aseguru bat sinatzea, Ikastegiko Zuzendaritzak ezarritako zenbatekoagatik, Musikeneko instalazioetan egon daitezkeen gastu eta kalteak estaltzeko eta, hala badagokio, jarduera egiteagatik Musikenek izan ditzakeen beste pertsona batzuekiko erantzukizunei aurre egiteko.

Artículo 11.- Atendidas las características de la actividad, podrá exigirse a la persona organizadora:

La suscripción de un seguro de responsabilidad civil a favor de Musikene, por el valor establecido por la Dirección del Centro, para cubrir los gastos y desperfectos en instalaciones de Musikene, así como para hacer frente, en su caso, a las responsabilidades que respecto a terceras personas pudieran derivar para Musikene por la celebración de la actividad.

12. artikulua.- Ikastegiko Zuzendaritzak, antolatzaile den pertsona fisiko edo juridikoari eskatu zaizkion agiriak eta datuak aztertu ondoren eta jardueraren inguruko txosten teknikoa ikusita (hauek eskatzea egoki dela erabaki bada), horri buruzko erabakia hartu eta jakinaraziko du gehienez hamabost egun balioduneko epean. Erabakia idatziz jakinaraziko zaie eskatzaileei eta jakinarazpenik egin ezean baimenik ez dela ematen ulertuko da.

Eskaera egiten duen pertsona fisiko edo juridikoari informazio osagarria edo argibideak eskatzen zaizkionean eta pertsona horrek gehienez bost egun naturaleko epean erantzuten ez duenean, bide eman dezake pertsona eskatzaileak bere eskaerari uko egiten diola ulertzeko.

Artículo 12.- La Dirección del Centro, tras la presentación de los documentos y datos que puedan requerirse a la persona física o jurídica organizadora, y –si estimara oportuno solicitarlos- a la vista de los informes técnicos relativos a la actividad, decidirá y comunicará al respecto en el plazo no superior a quince días hábiles. La decisión se comunicará por escrito a las personas solicitantes, entendiéndose que, en el supuesto de silencio, la autorización ha sido denegada.

Cuando se requiera a la persona física o jurídica solicitante la entrega de información complementaria o la realización de aclaraciones pertinentes y dicha persona no lo haga en un plazo máximo de cinco días naturales, podrá ser razón para considerar que la persona solicitante desiste de su petición.

13. artikulua.-

1. Gunea edo lokala modu puntualean erabiltzeko baimenaren jakinarazpena jaso ondoren, eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridikoak aurretiaz bete beharko ditu baimenean bertan ezartzen diren baldintzak.

Artículo 13.-

1º. Una vez recibida la notificación de la autorización de uso puntual del espacio o local, la persona física o jurídica solicitante deberá dar cumplimiento de forma previa a las condiciones que se establezcan en la propia autorización.

2. Baldintza horiek betetzea nahitaezkoa eta behar-beharrezkoa da lekua hartzeko eta eskatutako jarduera edo ekitaldia modu eraginkorrean gauzatzeko.

2º. El cumplimiento de estos requisitos se considerará imprescindible e indispensable para la ocupación y realización efectiva de la actividad o acto solicitado.

**14. artikulua.-** Hala dagokionean, jarduera egiteko baimenak ez du pertsona fisiko edo juridiko antolatzailea jarduerarako udal baimenak lortzeko betebeharretik salbuesten; baimen horiek lortu beharko dira jarduera egiteko baimena behin betikoa izan dadin.

**Artículo 14.**- La autorización de la actividad en modo alguno eximirá a la persona física o jurídica organizadora de la obtención, en su caso, de los correspondientes permisos municipales, que deberán igualmente adoptarse para que aquélla alcance carácter definitivo.

**15. artikulua.-** Eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridikoak, arrazoia edozein dela ere, erreserbatutako gunea ez badu erabili behar, idatziz jakinarazi beharko dio Ikastegiko Zuzendaritzari, beste eskaera batzuei erantzun ahal izateko. Jakinarazpen hori ekitaldiaren data baino bost egun baino gutxiagoko aurrerapenaz egiten bada, eskatzailea erreserban hitzartutako tarifaren %25a ordaintzera derrigortua egongo da.

**Artículo 15.**- Si la persona física o jurídica solicitante, por cualquier causa, no fuera a hacer uso del espacio reservado, deberá comunicarlo por escrito a la Dirección del Centro con el fin de que puedan atenderse otras peticiones. La comunicación de este hecho, con menos de cinco días de antelación a la fecha de realización de la actividad, obligará al abono del 25% de la tarifa estipulada en la reserva.

**16. artikulua.-** Jarduera egin ondoren, eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridikoak Musikeneko kontabilitate sailetik adierazitako epe eta kontuan espazioaren lagapenari dagokion tarifaren zenbatekoa sartuko du.

**Artículo 16.-** Tras la realización de la actividad, la persona física o jurídica solicitante deberá proceder a ingresar en el plazo y en la cuenta de Musikene que se le indique desde el área de contabilidad la cantidad correspondiente a la tarifa por la cesión del espacio.

## IRUGARREN TITULUA

## BAIMENDUTAKO JARDUERAK

## TÍTULO TERCERO

## ACTIVIDADES PERMITIDAS

**17. artikulua.-** Araudi honen arabera, espazio ezberdinetan ikuskizun eta jarduera kulturalak, artistikoak, zientifikoak, kiroletakoak, politikoak, sindikalak, erlijiozkoak, ongintzazkoak, solidarioak eta merkataritzakoak egin daitezke, betiere irabazi asmorik gabe eta araudi honek aipatzen dituen betekizunak eta baldintzak betetzen badira.

**Artículo 17.**- En el marco del presente reglamento, se entiende que se podrán celebrar actos, espectáculos y actividades de naturaleza cultural, artística, científica, deportiva, política, sindical, religiosa, benéfica, solidaria o comercial en los distintos espacios, siempre que no tengan ánimo de lucro, y, en todo caso, cumpliendo siempre los requisitos y condiciones a los que se hace referencia en esta normativa.

**18. artikulua.-** Baimena behar duen ekitaldia aurreko artikuluan aipatutako kategoria batean edo gehiagotan sar badaiteke, sailkapena baimena emateko eskumena duen Musikeneko organoak egin beharko du. Edonola ere, sailkapena gunea hartzeko baimena ematen duen ebazpenean bertan egin beharko da.

**Artículo 18.-** En los supuestos en que el acto para el que se solicita la autorización pueda incluirse en una o más categorías de las señaladas en el artículo anterior, la clasificación corresponderá al órgano de Musikene competente para el otorgamiento de la autorización, la cual deberá efectuarse en todo caso en la propia resolución en que se autoriza la ocupación del espacio.

## Lehenengo kapitulua

## Jarduera kulturalak, artistikoak, zientifikoak eta kiroletakoak

## Capítulo Primero

## Actividades culturales, artísticas, científicas y deportivas

**19. artikulua.-** Kapitulu honetan izaera kulturala, artistikoa, zientifikoa edo kiroletakoa duten edozein motatako ekitaldiak sartzen dira, esaterako, hitzaldiak, biltzarrak, erakusketak, ikuskizunak, erakustaldiak, etab. Ekitaldi horiek beste motibazio batzuk ere izan ditzakete.

**Artículo 19.-** En este capítulo se entenderán incluidos todo tipo de eventos, como conferencias, congresos, exposiciones, espectáculos, demostraciones, etc. cuya naturaleza sea fundamentalmente cultural, artística, científica o deportiva, sin perjuicio de que subsidiariamente abarquen otro tipo de motivaciones.

**20. artikulua.-**

1. Jarduera horiei dagokienez, ekitaldia osatzen duten egoera bereziak edo organo eskatzailearen berezitasunak kontuan hartuta, Ikastegiko Zuzendaritzak pertsona fisiko edo juridiko antolatzailea espazioa hartzeagatik ordaindu beharreko tasa osoa edo zati bat ordaintzetik salbuetsi dezake, modu ezohikoan eta baimena emateko ebazpenean justifikatuta. Musikeneri eragiten zaizkion gastu osagarriak ez dira inolaz ere salbuetsita egongo.

2. Pertsona fisiko edo juridiko antolatzailea ordainketatik salbu gelditzen den kasuetan, ekitaldiaren publizitatean (halakorik eginez gero) sartu beharko da laguntzaile edo babesle gisa, onartutako erakunde irudiaren araudian adierazitakoaren arabera.

**Artículo 20.-**

1º. En lo relativo a este tipo de actividades, la Dirección del Centro, en atención a las especiales circunstancias que conformen el acto o a las peculiaridades del órgano solicitante, podrá eximir a la persona física o jurídica organizadora del mismo, de manera excepcional y siempre justificada en la resolución de autorización, del abono de la totalidad o parte de la tarifa que le correspondería por la ocupación del espacio. En ningún caso de los gastos adicionales que genere a Musikene.

2º. En el supuesto de que se le exima a la persona física o jurídica organizadora del ingreso de la tarifa, deberá incluirse en la publicidad del acto, en caso de que la misma se efectúe, en calidad de colaboradora o patrocinadora, a Musikene conforme a la normativa de identidad corporativa aprobada.

## Bigarren kapitulua

## Jarduera politikoak, sindikalak eta erlijiozkoak

**21. artikulua.-** Ekitaldi politiko, sindikal eta erlijiozkotzat hartuko dira azken helburutzat proiektu eta ideologia politiko, sindikal edo erlijiozkoak aurkeztea, sustatzea, zabaltzea eta hedatzea duten jarduera eta ekitaldiak, biltzarrak eta erlijio ospakizunak barne.

**22. artikulua.-** Ekitaldi hauen publizitateak inola ere ezin izango du Musikene aipatu, ospakizuna egingo den tokia zehazteko ez bada.

**23. artikulua.-** Jarduera eta ekitaldi politikoak, sindikalak eta erlijiozkoak Musikeneko barneko lokaletara mugatuta geldituko dira eta ezin izango dira Ikastegiaren kanpoko guneetan egin.

## Capítulo segundo

## Actividades políticas, sindicales y religiosas

**Artículo 21**- Se entenderá por actos políticos, sindicales y religiosos todo tipo de actividades y eventos que tengan por finalidad última la presentación, promoción, expansión y difusión de proyectos e ideologías políticas, sindicales o religiosas, incluyéndose la organización de congresos y las celebraciones religiosas.

**Artículo 22.**- La publicidad de estos actos no podrá incluir, en ningún caso, referencia alguna a Musikene, salvo en lo que respecta a la determinación del lugar de celebración.

**Artículo 23.**- La celebración de este tipo de actividades y actos políticos, sindicales y religiosos queda constreñida a los locales interiores de Musikene, no pudiendo realizarse en los espacios exteriores del Centro.

## Hirugarren kapitulua

## Jarduera solidarioak eta ongintzazkoak

**24. artikulua.-** Jarduera solidario eta ongintzazkoen artean sartzen dira helburutzat hiritarrak gizarte, ingurumen edo ekologia disfuntzioei buruz kontzientziatzea, eta arazo horiek arintzera zuzendutako diru funtsak edo ondasun materialak biltzea dutenak.

**25. artikulua.-** Jarduera mota honetan produktuak saldu eta dirua edo edozein motatako ondasun higigarriak bil daitezke, betiere, lortutako irabaziak jarduerarekin salatutako egoera edo arazoa arintzeko bakarrik erabiltzen badira. Ikastegiko Zuzendaritzak, hala nahi izanez gero, pertsona fisiko edo juridiko antolatzailea jarduera egingo den gunea erabiltzeagatiko tarifa ordaintzetik

## Capítulo tercero

## Actividades benéficas y solidarias

**Artículo 24.-** Por actividades benéficas y solidarias se entenderán todos aquellos actos que tengan por objeto la toma de conciencia de la ciudadanía respecto a las disfunciones sociales, medioambientales o ecológicas de la sociedad actual, así como la recaudación de fondos dinerarios o bienes materiales destinados a paliar estos problemas.

**Artículo 25.**- En este tipo de actividades se permite la venta de productos y la recaudación de dinero y bienes muebles de cualquier categoría, siempre y cuando los beneficios obtenidos sean destinados única y exclusivamente a paliar la situación o el problema denunciado con la actividad. La Dirección del Centro podrá eximir a la persona

salbuets dezake.

física o jurídica organizadora, de forma discrecional, del pago de la tarifa por uso del espacio.

## Laugarren kapitulua

## Merkararitza jarduerak

## Capítulo cuarto

## Actividades comerciales

**26. kapitulua.-** Araudi honen arabera, merkataritza jardueratzat ulertuko dira Musikeneko helburu eta jarduerarekin zerikusia duten produktu komertzialak sustatzera bideratutako jarduera edo jarduerak.

**Artículo 26.-** Por actos de naturaleza comercial se entenderán, a los efectos del presente reglamento, el conjunto de actividades destinadas a promocionar productos comerciales relacionados con los fines y actividad de Musikene.

**27. artikulua.-** Produktuen sustapenari dagokionez, ezingo dira horiek saldu horretarako baimen zehatzik ez bada. Edonola ere, baimen hori ezohikoa eta arrazoitua izango da.

**Artículo 27.-** En el marco de la promoción de productos, no se podrá proceder a la venta de los mismos salvo que se disponga de autorización expresa en este sentido, la cual deberá ser siempre excepcional y motivada.

**28. artikulua.-** Ekitaldi hauen publizitateak inola ere ezin izango du Musikene aipatu, ospakizuna egingo den tokia zehazteko ez bada.

**Artículo 28.-** La publicidad de estos actos no podrá incluir, en ningún caso, referencia alguna a Musikene, salvo en lo que respecta a la determinación del lugar de celebración.

## Bosgarren kapitulua

## Espazioak irudiak hartu eta grabatzeko erabiltzea

## Capítulo quinto

## Uso de espacios para captación y grabación de imágenes

**29. artikulua.-** Ikastegiaren barruan irudiak hartu edo grabatzeko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoak aurrez Ikastegiaren Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio idatziz, horretarako sortuko den inprimaki eredua edo baliabide telematikoa erabiliz. Zuzendaritzarekin adostu beharko du irudian hartuko eta grabatuko diren eraikinaren guneetara bisita, eta pertsona eskatzaileak hartzen dituen konpromisoak jasotzen duen orria sinatuko du.

**Artículo 29.-** La persona física o jurídica interesada en captar o grabar imágenes en los espacios interiores del Centro deberá, previamente, informar de ello a la Dirección del Centro, por escrito utilizando el modelo de impreso o medio telemático que se cree al efecto, concertar con la Dirección la visita de las instalaciones que vayan a ser objeto de captación y grabación de imágenes, así como firmar la hoja con los compromisos a los que quedará sujeta la persona solicitante.

**30. artikulua.-** Nolanahi ere, pertsona interesdunak irudiak hartu eta erabiltzerakoan

**Artículo 30.-** La persona interesada captará las imágenes y hará un uso de las mismas

bertan ager daitezkeen pertsonen datuen babeserako eskubidea, eta ohore, irudi eta norberaren eta familiaren intimitaterako eskubidea errespetatuz egingo du, bai eta eraginda gerta daitezkeen egile eta ondarezko eskubideak ere.

respetando en todo caso los derechos de protección de datos, los derechos al honor, imagen e intimidad personal y familiar de las personas que pudieran aparecer en dichas imágenes, así de como los derechos de autor y patrimoniales que pudieran verse afectados.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Eranskinean jasotako espazioari dagokionez gerora erabilgarritasun eza sortzen bada ofizioz jasoko da Ikastegiaren Zuzendaritzaren ebazpen baten bitartez, aurrez Araudi hau aldatu beharrik izan gabe.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL

La indisponibilidad sobrevenida del espacio recogido en el anexo se recogerá de oficio mediante resolución de la Dirección del Centro, sin tener que modificarse previamente el presente Reglamento.

## AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Musikeneko Patronatuak onartu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean eta, nahi duenak honen berri izan dezan, Musikeneko webgunean ikusgai egongo da.

## DISPOSICIÓN FINAL

El presente Reglamento entrará en vigor al día siguiente de su aprobación por el Patronato de Musikene y estará expuesto, para general conocimiento, en la página web de Musikene.

## ERANSKINA

1- Lagapenerako akordioa

2- Espazioen planoa:

- Musikeneko AUDITORIUMA
- Musikeneko ORGANO ARETOA
- Musikeneko gelak
- Musikeneko tutoretza gelak

Hirigintzazko garapen eta aktuazioen ondorioz baliagarri gerta daitekeen beste edozein.

3- Eskaera eta behar teknikoek eskaera-eredua

4- Irudiak hartu eta grabatzeko eskaera-eredua

5- Eraikinaren larrialdi Planaren laburpena

Donostia-San Sebastián, 2019ko apirilaren 30a

## ANEXO

1- Acuerdo de cesión

2- Plano de espacios:

- AUDITORIO de Musikene
- SALA DE ORGANO de Musikene
- Aulas de Musikene
- Salas de tutoría de Musikene

Cualquier otro que, como consecuencia del desarrollo y actuación urbanística, pueda devenir aprovechable.

3- Modelo de solicitud y necesidades técnicas

4- Modelo de solicitud para captación y grabación de imágenes

5- Resumen Plan de emergencia del edificio

Donostia-San Sebastián 30 de abril de 2019